

eta *Hazkuntza*, "educación", eta adierazpenik aski eman du eritzi honen inguruko

Bukatzean jarraitu den elkarrizketan zenbait eritzi desberdin agertu badira ere, interes handiarekin jarraitu da gaia bere funtsean.

g) *Emakumeen nazioarteko urtea delata:*

Aurreko batzarrean esana ontzat hartzen da, eta ekainaren 27an Donostiako batzarrean emakumeen urtea ospatzea onhartu da. Euskaltzain osoen batzarrean erabakiko da zer nola antolatu.

h) *Martxoko batzarra:*

Martxoko azken ostirala, Ostiral Santua delako, aurreratu beharra agertu da. Beraz, erabaki denez, urrengo batzarra martxoaren 26an izango da, asteazkenez. Larunbat Santuz, 29an, eta Arrasateko Teknik Ikastegian, B mailako irakasle titulua lortzeko etsaminak egingo dira. Etsamina hoiien aurretik bi ekinaldi egongo dira, eta hoietan irakasleak beren aztura eta irakasbideak elkarri ezagut arazteko aukera izango dute.

*Euskaltzainburua*  
*LUIS VILLASANTE*

*Idazkaria*  
*JUAN SAN MARTIN*

1975-III-26

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko martxoaren 26an, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, X. Diharce "Iratzeder", A. Irigoyen, P. Lafitte, L. Mitxelena eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; P. Altuna, G. Aresti, J. Berrojalbiz, X. Kintana, J. L. Lizundia, I. Sarasola, J. Zaitegi, M. Zarate eta A. Zatarain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dela.

Arrue, Dassance, Davant, Erkiaga, Larzabal, Larre eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Otsaileko batzar agiria onartu da.

a) *Har-emanak:*

Baionako Mende Berri taldearen gutuna irakurri da, aur-tengo udaran ere euskara ikastaldiak eginen dituztela eta Euskaltzaindiaren babesa eskatuaz. Onartzen da.

Donostiako Elhuyar taldeak lantegi-hitz zerrenda bidali du, eta irakurri ondorean era honetara onartzen dira: ALDAGELAK (Vestuarios), FABRIKA BURU (Jefe de fabricación), LANTEGI BURU (Jefe de taller), BULEGOETARA (Llamada oficinas), GORDAILURA (Llamada almacén), EZ SAR (Prohibida la entrada), PERITUA (Perito), DESEINU GELA (Sala de Dibujo).

I. Sarasola jaunak I Congreso de Defensa de la Cultura Catalana-ren berri ematen du, datorren urterako nola gertatzen ari diren eta bertara gure adesioa eskatuz. Ontzat hartzen da eta Sarasola jauna izendatzen da, Barcelona-n estudiantzen dagoenez, gure har-emanen ordezkari.

J. M. Satrustegi jaunak Nafarroako eskola bildu batzuetan euskarak duen tratua azaldu zuen, bereziki, erlijioa euskeraz irakasteko trabak jartzen direlako, bilingüismoari tokirik uzten ez zaiolako, etab. Hori guzti hori larriagoa gertatzen da, Nafarroak dituen foru eskubideak jakinik. Euskaltzaindiak bere kezka agertzea erabakitzen du.

*Hartu diren liburukak:*

I. Sarasolak argitara berri duen *Txillardegia eta Saizarbitoriaren Nobelagintza* (Irakurlearentzat gidari) izeneko saiera liburua Kriselu argitaldari berriak aterea; Gero argitaldaria Siadeco-ren *Goiherri bailara Industriagintza bidean* estudio lana; Lankide Aurrezkiak emana J. Altunaren *Lehen Euskal Herria* (Guía ilustrada de prehistoria vasca-Guide illustré de préhistoire basque), Gerok argitaratua; Caja de Ahorros Vizcaina-k emanak, *Salbabide ta laguntza, Salvamento y socorrismo*, bi ale, bata euskaraz eta bestea erdaraz, eta *Dinamarca ganadera* Ricardo Jorge Rueda-rena; Gordailuk emanak, *Esporientziak*, 2 eta 3. aleak, J. L. Lizundiaren *Durangaldea*, Nekane Arruabarrenaren *Artzantza*, J. Fdez. Setién-en *Laborantza*, eta A. Amondarainen *Edariak*; Lejoako Euskal Kultur Taldearen "Hibai-Zikin" izeneko aldizkariaren lehen zenbakia; Buenos Aires-ko Editorial Vasca "Ekin"ek bidalia, Jesús M.<sup>a</sup> Leizaola-ren *Acontecimientos del siglo XX y*



su influencia en la poesía vasca; J. San Martín-ek emanak, F. Arozena-ren *El país vasco visto desde fuera* eta G. Mujikaren *Eibar, Monografía histórica*; Dirección General de Archivos y Bibliotecas del Instituto Bibliográfico Hispánico sailaren "Cuadernos de bibliografía española de artículos de revistas", Serie B Literatura —vol. 1-n.º 0 sept. 1974; Alfonso Otazu-ren "Las almas muertas de Vitoria", Moneda y Crédito aldizkariaren separata; A. Irigoyenek bere "La Colegiata de Cenarruza y sus seles", II Simposio sobre Historia del Señorío de Vizcaya-ko separata.

b) *Goizeko bilkuraren berri:*

L. Mitxelena jaunak, Herri izendegiko batzorde buru bezala aditzera eman du *Herri eta herritarren izenen* lehen zerrenda onartu dela. Zerrenda honek eskualde hauk hartzen ditu: Gorbeialdea, Araban; Durangaldea, Bizkaian; Leintz eta Oiñati, Gipuzkoan; Sakana eta Erro-Aezkoak, Nafarroan. Izendegirako aburu eta jokabide orokor batzuk, oinarriko zenbait puntutan, aztertu eta onartu ziren, adibidez: 1.—Laburpenetan zer joera erabili behar den; 2.—Bukaereta-ko *n*-ak zelan behar duten, Lemoa eta ez Lemoa, Lazkao eta ez Lazkano, baina -ao herri izenetan, -ano deituretan errespetatuaz (Lazkano bezala); 3.—Zenbait izenen H kontuan ez da arabaki zehatzik hartzen, oraingoz tokian tokiko usarioaren arabera uzteko, adibidez, Irisarri, Iruri, Hiriburu; baita ere, ohiturari dagokion eraz Irizar, Urizar, Uribarri direlakoak; berdin jokatuko da *n* eta *ñ*, *l* eta *ll* kasuetan ere, Oromiño eta abar, baina erregela esturik gabe; 4.—Aintzinako leku izen bat "carta puebla" delakoan agertzen bada, baina gero erdal izena gailendu bada eta euskal itxura hartu, bikoiztasun bat uzten da Arrasate, Mondragoe esate baterako; 5.—*e* paragogikoaren kasuan tokikoa errespetatzea erabakitzea, Gerrikaitz, Auritz, Ustaritze; 6.—Neologismoa inoiz onartu, adibidez, Sukarrieta baina izartxo batekin adieraziaz, eta abar.

d) "*Euskaltzaindia*" izenari buruz:

A. Zatarain jaunaren txostena, zenbait adibide azalduz. Elkarrizketak jarraitu dio, ondo asmatua dagoen ala ez; baina eritzien gaineratik, Euskaltzaindia, gaur egun, izen propio bezala finkaturik dago eta hola erabiltzea dala bidezkoena.

e) *"La xiriga" euskal hitzak asturiasko hizketan:*

M. Zarate jaunaren txostena, "La xiriga" auntz-erdera delakoari buruz. Asturiasko eskualde baten erabiltzen den hizkuntza edo mintzaera, Euskarazko hitz eta forma asko ditu eta hauen adibideak ematen ditu. Horrez gainera, handik Bizkaira joan-etorritzko, inmigrazio eta emigrazioen berri ere ematen du, eta, azkenik, azterketak jarraitzeko asmoa agertzen du.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

*Euskaltzainburua*  
LUIS VILLASANTE

*Idazkaria*  
JUAN SAN MARTIN

1975-IV-25

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko apirilaren 25ean, arratsaldeko laurretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, E. Erkiaga, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. F. Setien, J. Garmendia, S. Garmendia, X. Gereño, J. L. Lizundia, J. Zaitegi eta A. Zatarain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Dassance, Davant, Diharce, Larzabal eta Zavala jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Martxoko agiria onartu da.

a) *Har-emanak:*

Eusebio Erkiaga diruzainak 1975eko urtarrila, otsaila eta martxoko diru kontuen berri ematen du. Era orokarrez, denera: zegoena, 119.346,05 pezeta; gehitua, 456.439,52; urritua, 300.204,19; *dagoena, 275.581,36 pezeta*. Banku eta kuxetan dirua nola dagoen banaturik, eta sarrereren eta urritzeen zertzeladarik aipagarrienen berriak.

A. Zavala jaunak, gutunez, Gipuzkoako Pilotari Federazioak, pilota gaiez jartzen duen bertso-paper sariaren berri ematen du, sariketa arautegia aurkeztuaz eta epai-mahaia izendatze eskariaz. Epai-mahaiko hauek izendatzen dira: